Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# ARABAKO CAMPUSA

# KUDEAKETA TXOSTENA

## 2013/2014 ikasturtea

## 1.1. Ekintzailetza eta laneratzea bultzatzea

### 1.1.1. Enplegu Guneek eskaintzen dituzten zerbitzuak indartzea hiru campusetan eta ikasleengana hurbiltzea

- Laneratzeari dagokionez, Campusean hainbat ekintza burutu dira, besteak beste:
  - Las Nieves eraikinean kokatutako Enplegurako Orientazio Zentroaren koordinazioa, bere helburuetako bat lan munduan sartzeko orientazioa ematea eta titulatu berrien enplegagarritasuna hobetzea izanik.
  - Gasteizko Enplegu Foroa antolatu da, Gasteizko Udalaren lankidetzarekin, 2013ko abenduaren 12tik 13ra, Lascaray Ikergunean.
  - Laneratzea errazteko helburua izan duten ikastaroak eman dira, Letren Fakultateko, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako eta Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako ikasleentzat espezifikoki diseinatutakoak, 75 ikasle baino gehiago bertaratuta.
  - Halaber, 2013ko azaroaren 25etik 28ra, "Enplegua errazteko gaitasunak" izeneko ikastaroaren zortzigarren edizioa antolatu zen. 11 ikaslek eman zuten izena.
  - Lehen Aukera programaren barnean, enplegua bilatzeko gaitasun aurreratuei buruzko ikastaro bat egin da.

### 1.1.2. Ekintzailetzaren arloan laguntza eta aholkuak ematea ikasleei, autoenplegua sustatze aldera, eta prestakuntza kooperatibo-enpresariala eskaintzea

- Ekintzailetzarako kultura zabaltzeko jardunaren barruan, honako hauek dira Arabako Campuseko INIZIA programa garatzeko burutu diren jarduerak:
  - Gainerako campusetan ere antolatzen den Think Big sarirako deialdia egin da; bertara 23 ekintzaileren artean egindako 13 proiektu aurkeztu ziren, eta 3k jaso zuten saria.
  - Ekintzaileen arteko harremanak sustatzeko eta tokiko mintegien sare bat sortzeko ekintza bateratuak diseinatzea eta gauzatzea (Udala, Ajebask eta CEIA).
- AGUDEZIA izeneko ekintzaileen prestakuntza eta tutoretza ikastaroaren beste edizio bat antolatu da, 2014ko otsail eta ekain artean. Guztira 15 ikaslek eman dute izena, eskura zeuden plazen kopuru osoa betez. Agerpen publiko bat egin da ikasturtean zehar garatutako enpresa proiektuak aurkezteko, eta bertan izan dira CEIAko (Arabako Eraberrikuntza Industrialdea) zenbait kide.
- Laguntza eta aholkularitza eman zaie Arabako Campuseko ekintzaileei, AGUDEZIA programatik eratorritako proiektuak babestu eta tutoretza eskainiz.
- "2013 Araba Ekinean" edizioarekin lankidetzan aritu gara, ekinezko ekimenei eman beharreko sarien ebaluazio batzordeko kide gisa eta ekimen horri lagunduz.

- Gasteizko Udalarekin lankidetzan aritu gara, hitzarmen bat sinatuta, baita ekintzailetzarekin eta hiriko oinarri teknologikodun mintegiekin zerikusia duten gainerako eragileekin ere (Ajebask, CEIA eta Udala). Zenbait ekintza gauzatu dira lau erakundeen artean (Ekintzaileen Topaketa, ekintzailetzaren arloko eragileen aurkezpena Enplegu Foroan, etab.).

### 4.3. Esperientzia Gelen irakaskuntza eskaintza

#### 4.3.1. Esperientzia Gelen prestakuntza programazioa berrantolatzea, beharrak eta eskuragarri dauden bitartekoak egokituz

- Acaexa/Aeike elkartearekin lankidetzan aritu gara, ikastaro eta jarduerak antolatzeko.
- Arabako Campuseko Esperientzia Gelen jardueren zabalkundearen eremuan, bertako prentsa izan da lekuko, bai ikasturte hasieran bai ikasturtea ixtean. Era berean, egindako jardueren berri eman da honako hedabide hauetan: Radio Vitoria, Onda Cero eta Cadena Ser. Antzerki Taldearen hamargarren urteurrena dela eta, El Correo egunkariak horri buruzko eta "Despertando a Juanjo" antzezlanari buruzko albiste bat argitaratu zuen.
- Arabako Campuseko Esperientzia Geletako ikasleen asebetetze eta motibazio inkesta bat diseinatu eta egin da. Inkesta hori erabilgarria izan daiteke gure Giza Zientzietako titulazioaren ikasketa plana berrikusteko.
- Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak (HUI), titulazioa amaituta dutenei zuzendutakoak, erabat bereizi dira Giza Zientzien titulazioko hautazko irakasgaien eskaintzatik. Horretarako, HUIn eskaintzen diren irakasgaiak ikastaro osagarri bihurtu ditugu, graduondoko ikasketen modalitate gisa.

### 4.5. Titulatu berrien lan munduratzea

#### 4.5.1. Lan arloko erakundeekin hitzarmen gehiago sinatzea praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko

- Laguntza eskaini zaie Campuseko ikastegiei borondatezko praktikak kudeatzeko eta PRAKTIGES programa erabiltzeko. Farmazia Fakultatea eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea beren praktikak tresna honen bidez kudeatzen hasi dira.
- Parte hartu da Santander beken antolakuntzan eta kudeaketan, ETEetan praktikak egiteko. Deialdi honetan, 44 beka eman zaizkie Arabako Campuseko ikasleei (guztira 159 bekatik).
- Lehen Aukera bekak antolatzen eta kudeatzen parte hartu dugu. Beka horien helburua titulatu berri diren ikasleek enpresetan 12 hilabeteko praktikak egitea da. Deialdi honetan, guztira 339 bekatik, Arabako Campuseko ikasle graduatuei 69 eman zitzaizkien.
- Atzerrian praktikak egiteko beken programa koordinatu da (EPEZ-UPV/EHU bekak). Deialdi honetan, Arabako Campuseko ikasleei 11 eman zaizkie.

### 7.4. Unibertsitate Hedakuntza

#### 7.4.3. Kultur ekintzak antolatzeko Unibertsitateak bere inguruko kultur erakunde eta eragileekin daukan lankidetza zabaltzea

Arabako Campuseko Errektoreordetzak kultura hedakuntzarako hainbat jarduera antolatu ditu KULTUR CAMPUS programaren baitan. Programak 18 kultura jarduera barne hartu ditu, arte adierazpide ezberdinetakoak; besteak beste, 7 musika ekitaldi, ikus-entzunezko 2 hitzaldi eta 4 erakusketa. Halaber, 5 zinema proiekzio eskaini dira jatorrizko bertsio azpititulatuan, gai desberdinei buruzko bi ziklotan banatuta. Jarduera hauek antolatzeko, kontuan hartu dira bai arte joera berriak eta herrialdean bira egiten ari diren nazioarteko artisten eskaintza, bai tokiko taldeak eta proposamen originalenak, aldi berean euskaraz egindako jarduerak sustatuz.

#### 7.4.4. UPV/EHUren guneetan kultura ekintzak sustatzea eta programatzea

- Hainbat kultur ikasgela eta tailer antolatu dira. Halaber, zenbait laguntza eman dira Campusean biltzarrak, mintegiak, ikastaroak eta kultura jarduerak antolatzeko.
- Unibertsitate hedakuntzarako jardueren artean, Gasteizko kultur eragile ezberdinekiko lankidetza sustatu da, akordio ezberdinetan gauzatu dena, besteak beste: Artium museoarekin, ikasleek praktikak egin ditzaten; Mendizabala Institutuarekin, Campuseko kultura jarduerak grabatu eta editatzeko; eta Gasteizko Udalaren menpeko Film Office-ekin, Cortada jaialdian lankidetzan jarduteko. Era berean, hiriko beste kultura eragile batzuekiko lankidetza sustatu da (esaterako, Eusko Ikaskuntza, Sancho el Sabio Fundazioa eta Montehermoso), Arabako gizartean hedatuko diren kultura jarduerak antolatzeko hitzarmenak formalizatzeko helburuarekin.

#### 7.4.5. Unibertsitateko kideek kirol jarduerak egin ditzaten bultzatzea

- Jarduera fisikoa oro har sustatzeari dagokionez, ikastaro sorta zabala egin da, Unibertsitateko 306 parte-hartzaile izan dituena.
- Gasteizko Udalarekin egindako lankidetza hitzarmena, unibertsitate komunitatean kirolaren inguruko irakaskuntzari laguntzea eta kirola sustatzea helburu duena.
- Udal instalazioetarako sarrera librea ahalbidetzen duten 474 Herritarren Udal Txartel (HUT) egin dira.
- Horrez gain, lankidetza hitzarmenak lortu dira 19 gimnasio edo kirol zentro pribaturekin, eta 254 parte-hartzaile bertaratu dira horietara.
- Kirol Bidean udal kanpaina sustatu da, naturako jardueren programaren baitan; unibertsitateko 60 ikaslek hartu dute parte jarduera horietan.

- Arabako Campusak bere ordezkaritza izan du kirol federatuan, talde hauen bidez: gizonezkoen saskibaloiko EGA liga, emakumezkoen saskibaloiko 2. liga eta emakumezkoen saskibaloiko 1. liga nazionala.
- Unibertsitateko lehiaketa kirolari dagokionez, Campusean 30 kirol modalitate eskaini dira, taldekoak eta banakakoak; guztira 1.844 gizon eta 304 emakumek eman dute izena. Beranduago, sailkapenean postu onena lortu dutenek hainbat mailetako lehiaketetan hartu dute parte: campus artekoa, autonomia erkidegokoa, estatukoa eta nazioartekoa.

## 8. programa. EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN UNIBERTSITATEA

### 8.1. Euskara graduondoko eskaintzan

#### 8.1.2. Tesiak euskaraz egiteko bekekin aurrera jarraitzea

Euskararen arloko Errektoreordetzari doktorego tesiak euskaraz egiteko laguntzen deialdia egiten lagundu diogu.

### 8.2. Euskara esparru zientifiko eta kulturalean

#### 8.2.1. ZIO, Limes, Legeak eta halako bildumen garapena

4 liburu argitaratu dira: *Zergatik den egia eboluzioa* (ZIO 17), *Gizarte arloko jurisdikzioan erabiltzen diren hainbat ereduren bilduma elebiduna* (LEGEAK/LEYES 15), *Tratatu politikoa* (LIMES 20) eta *Antzinako erregimena eta iraultza* (LIMES 21).

#### 8.2.2. Laguntza ematea euskaraz argitaratzen diren unibertsitate aldizkariei, hobeto baloratuak izan daitezen argitalpen zientifiko moduan

- Aldizkarietako zuzendaritzekiko koordinazioa, horien indexazioa eta edizio digitaletako agerpena hobetzeko.
- Hainbat aldizkari argitaratzeko laguntza: Tantak, Ekaia ("Kannabisaren hamar aurpegiak" eta "2013 Estatistikaren Nazioarteko Urtea" ale bereziak), Gogoa, ASJU.

#### 8.2.3. Euskararen presentzia indartzea unibertsitatearen udako ikastaroen eskaintzetan

**U**dako Ikastaroak programako euskarazko ikastaroak gauzatzeko diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta publizitatea.

#### 8.2.4. Euskarazko argitaratze politikarekin jarraitzea (unibertsitate testuak, itzulpenak, etab.), titulazio berrietarako irakaskuntza materialen argitalpenari arreta berezia eskainiz

- Testu liburuak euskaratzeko ekintzak lagundu dira, baita liburuak eta bitarteko materialak euskaraz sortzekoak ere. Unibertsitateko 10 testu itzuli dira, eta formatu elektronikoan 5 liburu eta irakaskuntzarako 40 eskuliburu argitaratzeko laguntza eman da, baita beste formatu batzuetako hainbat material ere.
- Testuak banatzea Unibertsitateko ikastegietan.
- Euskarazko argitalpen guztiak aldizka beste unibertsitate batzuetara bidaltzea (Baiona, Deusto, Mondragon...).

#### 8.2.5. Laguntza ematea euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatuko duten ekitaldiak antolatzeko

"Euskararen Eguna" ospatzea Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusetan, eta "EHUskArabanda" Arabakoan (kontzertuak, hitzaldiak, zuzeneko irrati saioak, zine forumak, herri bazkaria, mintzodromoa, etab.).

**8.4. Irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen hizkuntza gaitasuna hobetzea**

**8.4.3. Euskara hobetzeko ikastaroen deialdia**

- Arabako Campuseko Errektoreordetzak, Euskararen arloko Errektoreordetzarekin batera, euskarazko oinarrizko maila duten langileei zuzendutako "Ahozko Jarduna Hobetzen" ikastaroak antolatu ditu.
- "LATEX Dokumentu Zientifiko eta Teknikoen Edizioa" ikastaroa antolatu da.

**8.6. Eleaniztasuna**

**8.6.1. Irakasle eta ikertzaileentzako eta AZPko langileentzako hizkuntza ikastaroen eskaintza babestea eta sustatzea**

- Unibertsitate komunitate osoari zuzendutako Arabako Campuseko Hizkuntza Laborategia antolatu eta kudeatu da. Bertan, ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren autoikaskuntza egin daiteke, multimedia sistema baten bidez, eta taldeko nahiz banakako tutoretzak eta bestelako jarduera osagarriak gauzatuz. 2013/2014 ikasturtean, guztira 90 pertsonak hartu dute parte bertan.
- Maiatzean, UPV/EHUren TOPTULTE azterketarako prestatzeko ikastaro trinkoa antolatu da. Zeregin hori Arabako Campuseko Hizkuntza Laborategiko jardueren artean sartzen da.

## 9.2. Nazioarteko mugikortasuna eta trukea

### 9.2.1. Hedapena indartzea eta graduko nahiz graduondoko ikasleei zuzendutako mugikortasun programak eta atzerriko egonaldiak kudeatzea

- 2013/2014 ikasturtean, Arabako Campusak, beste bi campusekin batera, ikasle titulatuentzako EPEZ VIII mugikortasun programan hartu du parte; horren baitan, 65 graduatuk praktikak egin zituzten Europako enpresatan.
- Era berean, 2013ko abenduaren 12an eta 13an egindako Enplegu Foroan bekei eta praktikei buruzko saio espezifiko bat antolatu zen. Bertan, hainbat aditu izan ziren, Global Training bekei buruzko informazioa (Eusko Jaurlaritzarekin batera) eta EPEZ bekei buruzkoa ematen.
- Arabako Foru Aldundiarekin batera, apirilaren 7an eta 14an bi jardunaldi antolatu ziren Las Nieves eraikinean, "Europan Ikastea eta Lan Egitea" izenburupean, graduko eta graduondoko ikasleei zuzenduta; guztira 25 pertsona izan ziren bertan.

## 12.2. Campusen garapena

### 12.2.1. Urte anitzerako inbertsio plana (2011-2015) gauzatzea

- Gizarte eta Giza Zientzien Ikerkuntzarako Gunea eraikitzea: Eraikuntza lanak 2012ko irailean hasi ziren, 21 hileko epea aurreikusiz. 2014ko uztailean sinatu zen eraikinaren harrera akta.
- Ikasgelategia handitzea: Oinarrizko proiektua idatzi da, eta Gasteizko Udalean Unibertsitate Gunearen II. fasearen 5. Plan Bereziaren 3. aldaketa izapidetu eta onartu da. Horrekin batera, Udalak behin betiko onartu du Gasteizko udalerriko HAPOren aldaketa zehaztua, BBPB-5. Unibertsitate Gunearen II. fasearen kudeaketari buruzkoa.

### 12.2.2. Enpresa mintegien funtzionamenduari laguntzea

- 2013ko urrian, enpresak INIZIA mintegira sartzeko deialdira aurkeztutako 5 proiektuak biltzen zituen entrega akta bat sinatu zen. Inkubazio eremuan instalatu ziren Baigene S.L. eta Un-Diet Unidad de Salud Alimentaria Elikadura Osasuneko Unitatea S.L. enpresak. Bi proiektuen egonaldia urte batekoa da, baina luza daiteke, aldez aurretik Batzordeak proiektuaren aurkezpena eta balorazioa aurkezten baditu.
- Inkubatu aurreko eremuan Nutriaktive, NA+HA eta Varep proiektuak egon dira 6 hilez. 2014ko apirilean, egonaldiak amaitu ondoren, Nutriaktive eta i+Med (NA+HA proiektuaren luzapena) proiektuek inkubaziora sartzeko eskaera aurkeztu dute. i+Med proiektuaren eskaera onartu da, eta enpresa bihurtu da 2014ko ekainean (I+Med S. Coop. Txikia). Aldi berean, enpresa horrek Lascaray Ikerguneko ikerketa espazio komunak erabiltzeko baimena jaso du.

### 12.2.4. Laborategietako irisgarritasuna hobetzea

Campuseko Irisgarritasun Plana garatzeko, ikastegietako sarrera nagusiak hobetzen jarraitu dugu (barandak jartzea, ate automatikoak jartzea, ateen norabidea aldatzea, sartzeko arrapalak hobetzea, etab.). Horrez gain, Irakasleen Unibertsitate Eskolako komunak birmoldatu dira, horien irisgarritasun unibertsala bermatzeko. Aldi berean, beste jarduketa zehatzago batzuk ere gauzatu dira, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuarekin koordinatuta; esaterako, ezgaitasunak dituzten pertsonak ebakuatzeko aulkiak erostea.

### 12.2.5. Campusetako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa Europako Unibertsitate Eremura egokitzen laguntzea

- Ikastegiei eskainitako deialdi ezberdinen bidez, ekipamendu informatikoa hobetu da (softwarea eta hardwarea), baita Campuseko ikastegietako ikasgela, mintegi eta laborategietako ikus-entzunezko ekipamendua ere. Sei laborategi berri erosi dira hainbat ikastegitarako, nagusiki graduko titulazioetan

zehaztutako beharrekin bat datorren ikaskuntza praktikoa eta eraginkorra ahalbidetzeko.

- Beste alde batetik, Arabako Campuseko Errektoreordetzak lankidetzan jardun du, Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzarekin Campuseko irakasle eta ikertzaileen prestakuntza hobetzeko jarduerekin aurrera jarraitzeko, hots:
    - EHUNDU programa, ikastegietan gradu berrien curriculum garapena sustatzeko. Ildo horretan, eskaera bidezko aholkulari gisa lagundu diegu ikastegiei, irakaskuntza berrikuntzaren arloko hainbat gaietan.
    - Campusean garatzen diren 2012/13 eta 2013/14 aldiko hezkuntza berrikuntzarako 8 proiektuen laguntza eta segimendua egin dugu.
    - UIPRE programaren ikastaroetarako bi deialdi egin dira, guztira 19 ikastaro eskainiz, Campuseko irakasle eta ikertzaileen gaitasuna eta kualifikazioa hobetzea helburu hartuta. Ikastaroak presentzialak eta birtualak dira.
    - Irakasleak irakaskuntza metodologia eraginkorren inguruan prestatzeko ERAGIN programaren 5. edizioa egin da; Campuseko irakasle batzuek “Kasuko metodologia, problemetan oinarritutako ikaskuntza edo ikaskuntza kooperatiboa eta proiektuetan oinarritutakoa” izeneko tailerrean hartu dute parte (guztira, Campuseko 11 eta 13 kidek hartu zuten parte ERAGIN programaren 4. eta 5. edizioetan, hurrenez hurren).
    - Irakasle eta ikertzaileen premia espezifiko eta zeharkakoak betetzea helburu duen “Ikerkuntzarako laguntza metodologikorako mintegi iraunkorra” deialdian, nork bere gaitasunak hobetzera bideratutako prestakuntza eskaini da Arabako Campusean. Aldi honetan, 5 ikastaro antolatu dira eta 100 parte-hartzaile baino gehiago bertaratu dira.

### 12.2.6. Tokiko eta lurraldeko erakundeekin harremanak aktibatzea, lankidetza proiektuak sortzeko

- Arabako Foru Aldundiarekiko lankidetzaren ondorio gisa, hainbat hitzarmen sinatu dira, helburu hauekin: Campuseko kultura jarduerak babestea eta finantzatzea, biltzarrak eta halakoak antolatzea, Giza Zientziak titulua ematea (Vital Fundazioak ere babestuta, hitzarmen bidez), eta Campuseko Gazteentzako Informazio Zerbitzuari bere horretan eustea.
- “Vitoria-Gasteiz Gastronomiaren Hiriburua 2014” ekimenaren esparruan, Arabako Foru Aldundiarekin batera lan egin dugu, elkarren artean hainbat ekintza eta jarduera gauzatzeko.

- Bestalde, lankidetza hitzarmen bat sinatu da Arabako Foru Aldundiarekin, Arabako nekazaritzako elikagaien sektorea sustatzeko eta unibertsitate komunitatean sortutako proiektu berritzaileei bultzada emateko.
- Beste alde batetik, Gasteizko Udalak lankidetza eskaini du ariketa fisikoari buruzko hezkuntza eta sustapenean, kirol praktikarako instalazio eta eremu batzuk erabiltzen utziz. Horrez gain, "Cortada" Film Laburren Jaialdia finantzatzen lagundu du eta ekintzailetza babesteko lankidetza hitzarmen bat ezarri da.
- Kirolaren arloan, lankidetza hitzarmenak sinatu dira hiriko hogei bat gimnasiorekin, unibertsitate komunitatearentzako abantailak lortzeko asmoz.
- Halaber, Arabako Campuseko Errektoreordetzak Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluan hartu du parte, kide gisa, eta horrek UPV/EHUk udalerriko hirigintza planen hitzarmenean parte hartzea ahalbidetu du. Horrez gain, beste zenbait batzordetan ere parte hartu dugu: Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseilua, Senidetze Batzordea, ZAIN Fundazioa, Valentín de Foronda Institutuko Patronatu Batzordea eta Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Arabako Foroa (FOARSE).
- Zaballako Presondegian hitzaldi ziklo bat egiteko diru-laguntza eman da, Arabako Hiesaren Aurkako Batzordearekin lankidetzan, askatasunik ez duten pertsonei hezkuntza eta hausnarketa espazioak eskainiz, beren berreziketa eta ondorengo gizarteratzea errazteko helburuarekin.
- CIC-Energigune zentroaren, Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolaren, Lascaray Ikergunearen eta Campuseko Errektoreordetzaren artean informazioa elkartrukatzeko jardunaldi bat egin da.

### 12.3. Unibertsitate ostatua

#### 12.3.1. Unibertsitate egoitzetako plazen eskaintza handitzea

Aurrera jarraitu da Santa Maria Katedralaren Fundazioarekin ezarritako lankidetzarekin, gazte eta erromesentzako ostatua sustatu eta zabaltzeko eta Unibertsitateko kideentzako ostatu eskaintza kuantitatiboki zein kualitatiboki hobetzeko, baita Campusak sustatutako jardueretan parte hartuko luketen pertsonentzat ere.

#### 12.3.3. Etxebizitza solidarioen eskaintza handitzea

Ikasleak adineko pertsonekin bizitzeko programa sustatzeko zenbait ekintza landu dira.

### 12.4. Iraunkortasuna eta ingurumena

#### 12.4.1. Garraio iraunkorra sustatzea

- Bizikletak aparkatzeko lekuen kopurua areagotu da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultate inguruan. Gaur egun, Campuseko eraikin guztietan daude bizikletak aparkatzeko lekuak.
- Aurrera jarraitu da "Autoa partekatu" programarekin.

**12.4.2. Energia aurrezteko bidean aurrerapausoak ematea (eko-kudeaketa, ingurumen kudeaketa)**

Ikuskaritza energetikoak egin dira UPV/EHUren Arabako Campuseko eraikin guztietan; ikuskaritzak 2014ko urrian amaitzea aurreikusten da. Instalazio fotovoltaiko bat jarri da Gizarte eta Giza Zientzien Ikergune berrian. Aurreko urteetako lan ildoarekin jarraituz, Irakasleen UEko eta Farmazia Fakultateko zenbait lokaletan eta geletan argiak aldatzeko eta eraginkortasun handiagoko beste batzuk jartzeko lanean ari gara, baita korridoreetako eta gune komunetako argiak ere. Horretarako, egokitu beharreko eremuen egungo argiztapen mailaren azterketa bat egin da aldez aurretik. Gerenteak 2013ko martxoaren 6an hartutako Erabakiaren bidez irekitako unibertsitate zerbitzurako egokia ez den material informatikoa doan emateko espedientearen (OP 23/13) ondorio gisa, 135 ordenagailu eman zaizkie erabilera publikoko elkarteei edo fundazioei. Azkenik, Arabako Campuseko Errektoreordetzaren eraikinak bere Ekoscan ziurtagiria berritu du.

**12.4.3. Erakundeekin batera lan egitea garraio publikoa hobetzeko, eta ordezko garraiobideen erabilera bultzatzea**

Mugikortasun azterketa eta Gasteizko autobusen terminalaren lekualdaketaren ondorioz garraio publikoa Campusera sartzearen konnotazioei buruzko txostena garatzeko asmoz, Arabako Foru Aldundiarekin, Gasteizko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera lan egin dugu, une honetan Campusean egiten diren geraldiei beren horretan eusteko, Bilboko eremu metropolitarretik datozen eta bertara doazen garraioei dagokienez. Horren guztiaren helburua unibertsitate jarduerarekin lotura duten joan-etorrietan iraunkortasun handiagoa lortzea da.

**12.5. Ikasleentzako topaguneak**

**12.5.1. Ikasletxeak proiektua garatzea**

- Proiektuaren berri eman zaio Campuseko Ikasle Kontseilu berriari.
- Unibertsitate Pabiloian ikus-entzunezko materiala utzi da, kultura espazio hau hobetzeko eta egokitzeko.

**12.5.2. Campusetako azpiegiturak hobetzea**

Ikastegiak berritzeko, handitzeko eta hobetzeko egindako lanez gain, kultura sustatzea helburu duen IKD ikuspuntutik begiratuta, zenbait espazio prestatu dira ikaskuntzarako metodologia eraginkorrak erabiltzeko eta ikasleek lan praktikoa eta taldekoa egiteko. Ildo horretan, besteak beste, Ingeniaritzako UEn gune berri bat prestatzeko, Koldo Mitxelena Bibliotekan lanerako aretoak berritzeko eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean aisialdirako kanpoko gunea hobetzeko lan egiten ari gara.

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# CAMPUS DE ÁLAVA

# INFORME DE GESTIÓN

## Curso Académico 2013-2014

## 1.2. Fomento del emprendizaje e inserción laboral

### 1.2.1. Reforzar los servicios ofrecidos por los Centros de Empleo en los tres Campus y acercarlo al alumnado

- Se han desarrollado diversas acciones en el Campus en relación con la Inserción Laboral, entre ellas:
  - Coordinación del Centro de Orientación para el Empleo, ubicado en el edificio Las Nieves, siendo uno de los fines la orientación para la inserción laboral y la mejora de la empleabilidad de los egresados.
  - Organización del Foro de Empleo de Vitoria-Gasteiz en colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, del 12 al 13 de diciembre de 2013, en el Centro de Investigación Lascaray.
  - Se han impartido cursos orientados a facilitar la inserción laboral de forma específica para los estudiantes en la Facultad de Letras, Escuela de Trabajo Social y la Escuela Universitaria de Empresariales, a los que han asistido más de 75 alumnos.
  - Así mismo, del 25 al 28 de noviembre de 2013 se organizó la octava edición del curso de "Competencias facilitadoras de empleo", a los que se inscribieron 11 alumnos.
  - Dentro del programa Lehen Aukera, se ha celebrado el curso de competencia avanzada en la búsqueda de empleo.

### 1.2.2. Orientar y asesorar al alumnado en las acciones de emprendimiento, fomentando el autoempleo, y ofrecer formación cooperativo-empresarial

- En la difusión de la Cultura Emprendedora, para el desarrollo del Programa INIZIA del Campus de Álava se han llevado a cabo las siguientes actividades:
  - Convocatoria del premio Think Big, organizado también en el resto de campus, en la que se presentaron 13 proyectos en los que participaron 23 emprendedores, resultando premiados 3 de ellos.
  - Diseño y ejecución de acciones conjuntas para el fomento de las relaciones entre emprendedores y la creación de una red de viveros locales (Ayuntamiento, Ajebask y CEIA).
- Se ha organizado una nueva edición del curso de formación y tutorización de emprendedores AGUDEZIA, entre los meses de febrero y junio de 2014. El número inscritos, 15 alumnos, ha cubierto el número máximo de plazas disponibles. De los proyectos empresariales desarrollados durante el curso, se ha realizado una presentación pública al que acudieron miembros de CEIA (Centro de Empresas Innovadoras de Álava).

- Apoyo y asesoramiento a los emprendedores del Campus de Álava en las labores de tutela y tutorización de los proyectos derivados del programa AGUDEZIA.
- Colaboración en la edición del "Álava Emprende 2013", como miembro de la comisión evaluadora de los premios a las iniciativas emprendedoras y en apoyo al mismo.
- Colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a través de una firma de convenio, y con el resto de agentes implicados en el emprendimiento y los viveros de base tecnológica de la ciudad de Vitoria-Gasteiz (Ajebask, CEIA y Ayto). Se han realizado algunas acciones de forma conjunta entre las cuatro instituciones (jornada de encuentro entre emprendedores, presentación de los agentes de empredimiento en el Foro de empleo, etc.).

**4.3. Oferta de estudios de las Aulas de la Experiencia**

**4.3.1. Reorganizar la programación formativa de las Aulas de la Experiencia adecuando necesidades y recursos disponibles:**

- Se ha colaborado con la Asociación Acaexa/Aeike en la organización de sus cursos y actividades.
- En el ámbito de la difusión pública de las actividades de las Aulas de la Experiencia del Campus de Álava, tanto con motivo de la Apertura de Curso como del Acto de Clausura se ha estado presente en la prensa local. Asimismo, las actividades realizadas se han dado a conocer en los siguientes medios de comunicación: en Radio Vitoria, Onda Cero y Cadena Ser. Señalar que con motivo del décimo aniversario del Grupo de Teatro, el periódico El Correo elaboró una noticia haciéndose eco de ello y de la representación de la obra de teatro "Despertando a Juanjo".
- Se ha diseñado y realizado una encuesta de motivación y satisfacción de los alumnos de las Aulas de la Experiencia del Campus de Álava, que puede ser de utilidad a la hora de revisar el plan de estudios de nuestra Titulación en Ciencias Humanas.
- Se han separado completamente los Cursos Universitarios de Mayores (CUM), que se imparten para aquellos alumnos que ya han completado la Titulación, de la oferta de asignaturas optativas propias de la Titulación en Ciencias Humanas. Para ello las asignaturas que se ofertan en el CUM las hemos transformado en Cursos Complementarios que son una de las modalidades de los Estudios de Postgrado.

**4.5. Inserción laboral de egresados**

**4.5.1. Incrementar los acuerdos con entidades del ámbito laboral para la realización de prácticas y para la elaboración de los Trabajos de Fin de Grado**

- Se ha prestado apoyo a los Centros del Campus en la gestión de las prácticas voluntarias y en el uso del programa PRAKTIGES. La Facultad de Farmacia y la Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte han comenzado a gestionar sus prácticas a través de esta herramienta.
- Se ha participado en la organización y gestión de las Becas Santander, para la realización de prácticas en pymes. En esta convocatoria, a los alumnos del Campus de Álava les fueron adjudicadas 44 becas del total de las 159 becas concedidas.
- Se ha participado en la organización y gestión de las Becas Lehen Aukera, para la realización de prácticas durante 12 semanas en empresas por parte de los alumnos recién egresados. En esta convocatoria, del total de 339 becas, al alumnado graduado del Campus de Álava les fueron adjudicadas 69 becas.

- Se ha coordinado el programa de becas para la realización de prácticas en el extranjero (Becas EPEZ-UPV/EHU). En esta convocatoria, a los alumnos del Campus de Álava le fueron adjudicados 11 becas.

## 7.4. Proyección Universitaria

### 7.4.3. Ampliar la colaboración con las entidades y agentes culturales del entorno en la programación de actividades culturales

El Vicerrectorado del Campus de Álava ha organizado un conjunto de actividades de extensión cultural que se agrupan en el programa KULTUR CAMPUS. El programa ha comprendido 18 actividades culturales relativas a distintas manifestaciones artísticas, entre ellas, 7 eventos musicales, 2 conferencias audiovisuales y 4 exposiciones. Así mismo, se han ofrecido 5 proyecciones de Cine en Versión Original Subtitulada, distribuidas en dos ciclos de distinta temática. En la organización de estas actividades se tuvieron en cuenta tanto las nuevas tendencias artísticas y la oferta internacional de gira por el país, como los grupos locales y las propuestas más originales, impulsando también la realización de actividades en euskara.

### 7.4.4. Promoción y programación de actividades culturales en los espacios de la UPV/EHU

- Se han organizado diversas aulas culturales y talleres culturales. Asimismo, se han concedido diversas ayudas destinadas a la organización de congresos, seminarios, cursos y actividades culturales en el Campus.
- Entre las actividades de proyección universitaria se ha impulsado la colaboración con diversos agentes culturales de Vitoria-Gasteiz, que se han materializado en diferentes acuerdos, entre ellos, con el Museo Artium para incorporar estudiantes en prácticas, con el Instituto Mendizabala, para la grabación y edición de actividades culturales del Campus y con la Film Office, dependiente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, para colaborar en el Festival Cortada. Así mismo, se ha impulsado la colaboración con otros agentes culturales de la ciudad, como Eusko Ikaskuntza, la Fundación Sancho el Sabio y Montehermoso, al objeto de formalizar acuerdos de colaboración para la organización de actividades culturales de proyección en la sociedad alavesa.

### 7.4.5. Promover y apoyar la práctica deportiva entre la comunidad universitaria

- En la promoción general de la actividad física, se ha realizado una oferta amplia de cursos en los que han participado 306 universitarios.
- Convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para el apoyo a la docencia y fomento del deporte en la comunidad universitaria.
- Se han expedido 474 carnés de Tarjeta Municipal Ciudadana (TMC) que permite el acceso libre a instalaciones municipales.
- Asimismo se han conseguido acuerdos de colaboración con 19 gimnasios o centros deportivos privados a los que han asistido 254 participantes.

- Se ha promocionado la Campaña Municipal de Rumbo al Deporte dentro del programa de Actividades en la Naturaleza, en el que han participado 60 universitarios.
- El Campus de Álava ha estado representado en el deporte federado por los siguientes equipos: baloncesto masculino liga EGA, baloncesto femenino liga femenina 2 y baloncesto femenino 1ºNacional.
- En relación con el deporte de competición universitario, en el Campus se han ofertado 30 modalidades deportivas, colectivas e individuales, inscribiéndose en las mismas 1844 hombres y 304 mujeres. Posteriormente, los mejores clasificados han participado en competiciones a nivel intercampus, comunidad autónoma, estatal e internacional.

**8.1. El euskara en la oferta de postgrado**

**8.1.2. Continuar con las becas para realización de tesis en euskara**

Se ha apoyado al Vicerrectorado de Euskara en la convocatoria de ayudas para fomentar la realización de tesis doctorales en Euskara

**8.2. El euskara en el ámbito científico y cultural**

**8.2.1. Desarrollo de colecciones ZIO, Limes, Legeak,...**

Se han publicado 4 libros: Zergatik den egia eboluzioa (ZIO 17) y Gizarte arloko jurisdikzioan erabiltzen diren hainbat ereduren bilduma elebiduna (LEGEAK/LEYES 15), Tratatu politikoa (LIMES 20) y Aintzinako erregimena eta iraultza (LIMES 21).

**8.2.2. Apoyar las revistas universitarias publicadas en Euskara con el fin de mejorar su valoración como publicaciones científicas**

- Coordinación con las direcciones de las revistas para mejorar su indexación y aparición de ediciones digitales.
- Apoyo a la publicación de las revistas Tantak, Ekaia (números especiales "Kannabisaren hamar aurpegiak" y "2013 Estatistikaren Nazioarteko Urtea), Gogoa, ASJU.

**8.2.3. Impulsar la presencia del Euskara en la oferta de los diferentes cursos universitarios de verano.**

Subvenciones, ayudas y publicidad de los cursos en euskara en el programa Udako Ikastaroak.

**8.2.4. Continuar con la política editorial en euskara (textos universitarios, traducciones,...) haciendo hincapié en la publicación de materiales docentes para las nuevas titulaciones.**

- Se han apoyado las actuaciones dirigidas a la traducción de libros docentes al Euskara y a la generación de libros y medios materiales en Euskara. Se han traducido 10 textos universitarios, se ha apoyado la publicación de 5 libros y de 40 manuales docentes en formato elecrónico, además de diverso material en otros formatos.
- Distribución de los textos en los centros de la universidad.
- Envío periódico de todas las publicaciones en euskara a otras universidades (Bayona, Deusto, Mondragón...).

### 8.2.5. Apoyar la organización de eventos para promover el uso del Euskara y la cultura vasca

Celebración del "Euskararen Eguna" en los Campus de Bizkaia y Gipuzkoa y el "EHUskArabanda" en el Campus de Álava con actividades diversas como conciertos, ponencias, programa de radio en directo, cinefórum, comida popular, mintzodromo, etc.

## 8.4. Mejorar la capacidad lingüística del PDI y el PAS

### 8.4.3. Convocatoria de cursos para el perfeccionamiento del euskara

- El Vicerrectorado del Campus de Álava, en colaboración con el Vicerrectorado de Euskara, ha organizado los el curso dirigido al personal con un nivel básico de euskara "ahozko jarduna hobetzen".
- Se ha organizado el curso "LATEX dokumentu zientifiko teknikoen edizioa".

## 8.6. Plurilingüismo

### 8.6.1. Apoyar e impulsar la oferta de cursos de idiomas para PDI y PAS

- Se ha organizado y gestionado el Laboratorio de Idiomas del Campus de Álava, destinado al total de la comunidad universitaria, para el autoaprendizaje de inglés, francés y alemán mediante un sistema multimedia y apoyo en tutorías grupales e individuales y actividades complementarias diversas. En total a lo largo del curso 2013/2014 han participado en el mismo 90 personas.
- Durante el mes de Mayo, se ha organizado el curso intensivo de preparación al examen TOPTULTE de la UPV/EHU. Esta labor se incluye entre las actividades del Laboratorio de Idiomas del Campus de Álava.

## 9.2. Movilidad e intercambio internacional

### 9.2.1. Potenciar la difusión y gestionar los programas de movilidad y de estancias en el extranjero destinados al alumnado de grado y de posgrado

- Durante el curso 2013/2014 el Campus de Álava ha participado, junto a los otros dos campus, en el programa de movilidad para el alumnado egresado EPEZ VIII, donde 65 graduados/as realizaron prácticas en empresas europeas.
- Asimismo, durante el Foro de empleo celebrado de 12-13 de diciembre de 2013, se organizó una sesión específica de Becas y prácticas donde se contó con expertos, dando la información relativa a las Global Training, con la colaboración de Gobierno Vasco, y a las becas EPEZ.
- Junto con la Diputación Foral de Álava, el 7 y 14 de abril se han organizado dos jornadas en el Edificio Las Nieves sobre el tema "Estudiar y Trabajar en Europa" orientada para los estudiantes de grado y postgrado, a los que han asistido un total de 25 personas.

## 12.2. Desarrollo de los Campus

### 12.2.1. Ejecutar el Plan Plurianual de Inversiones 2011-2015

- Construcción del Centro de Investigación de Ciencias Sociales y Humanidades: Las obras de construcción se iniciaron en septiembre de 2012, con un plazo estimado de 21 meses. En julio de 2014 se ha firmado el Acta de Recepción del edificio.
- Ampliación del Aulario: Se ha redactado el Proyecto Básico y se ha tramitado y aprobado en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz la 3ª modificación del Plan Especial nº 5 Complejo Universitario II fase. Junto con ello, el Ayuntamiento ha aprobado definitivamente la modificación puntual pormenorizada del PGOU del término municipal de Vitoria-Gasteiz relativa a la gestión del ámbito del PERI nº 5 Complejo Universitario II fase.

### 12.2.2. Apoyar el funcionamiento de los viveros de empresa

- En octubre de 2013 se suscribió acta de entrega con los 5 proyectos presentados a la convocatoria para el acceso de las empresas al Vivero INIZIA. En la zona de incubación se instalaron las empresas Baigene, S.L. y Un-Diet Unidad de Salud alimentaria Elikadura-osasuneko Unitatea, S.L. La estancia de ambos proyectos es de un año, con posible prórroga previa presentación de proyecto y valoración por parte de la Comisión.
- En la zona de preincubación se han alojado durante 6 meses los proyectos Nutriaktive, NA+HA y Varep. En abril de 2014, al finalizar las respectivas estancias, los proyectos Nutriaktive e i+Med (extensión del proyecto NA+HA) han presentado solicitud para acceder a incubación. Aceptada la solicitud de i+Med, ésta se ha constituido en empresa (i+Med S. Coop Pequeña) en junio de 2014. Esta empresa, asimismo, ha sido autorizada para utilizar los espacios comunes de investigación del Centro de investigación Lascaray Ikergunea.

### 12.2.4. Mejorar la accesibilidad de los edificios

En desarrollo del Plan de Accesibilidad del Campus, se ha continuado con la mejora de los accesos principales de los centros (colocación de barandillas, colocación de puertas automáticas, cambio de sentido de puertas, mejora de rampas de acceso...). Asimismo, se han remodelado los aseos de la Escuela Universitaria de Magisterio con el fin de garantizar su accesibilidad universal. Asimismo se han realizado otras actuaciones más puntuales, en coordinación con el Servicio de Atención a personas con discapacidad, tales como la adquisición de sillas de evacuación para personas discapacitadas.

### 12.2.5. Colaborar en la adecuación de la docencia, investigación y gestión de los campus al EEES

- A través de diferentes convocatorias dirigidas a los centros, se ha procedido a la mejora del equipamiento informático (software y hardware) así como a la mejora del equipamiento audiovisual de las aulas, seminarios y laboratorios de los centros del Campus. Se ha procedido a la adquisición de equipamiento docente de laboratorio destinado a los diferentes centros, con el fin garantizar una docencia práctica y eficaz en línea con las necesidades establecidas en las titulaciones de grado principalmente.
- Por otra parte, el Vicerrectorado del Campus de Álava ha colaborado con el Vicerrectorado de Estudios de Grado e Innovación en el seguimiento de las actividades dirigidas a mejorar la formación del PDI en el Campus, entre ellas en:
    - El Programa EHUNDU para impulsar el desarrollo curricular de los nuevos grados en los Centros. En este sentido se ha colaborado a nivel de asesoría a demanda a los centros en diferentes materias de innovación docente.
    - Se ha realizado el seguimiento y apoyo a los 8 Proyectos de Innovación Educativa del período 2012/14 y 2013/15, desarrollados en el Campus.
    - Se han realizado dos convocatorias de cursos del Programa FOPU, en las que se han ofertado 19 cursos orientados a mejorar las competencias y cualificación del PDI del Campus, tanto en modalidad presencial como virtual.
    - Se ha llevado a cabo la 5ª edición del programa de formación de profesorado en metodologías docentes activas ERAGIN, en la que participa profesorado del campus en el taller "Metodología del caso, aprendizaje basado en problemas o aprendizaje cooperativo y basado en proyectos", contando 11 participantes y 13 participantes del Campus en las ediciones ERAGIN 4 y 5, respectivamente.
    - En el marco de la convocatoria "Seminario Permanente de Apoyo Metodológico para la Investigación" en el Campus de Álava, que pretende cubrir las necesidades específicas y transversales del PDI, se ha impartido formación orientada a mejorar sus competencias. Durante este periodo, se han organizado 5 cursos a los que han asistido más de 100 participantes.

### 12.2.6. Activar contactos con Instituciones locales y territoriales para establecer proyectos colaborativos

- Como fruto de la colaboración con la Diputación Foral de Álava, se ha suscrito un convenio para el apoyo y financiación de las actividades culturales y celebración de congresos, etc. en el Campus, un convenio para la impartición del título de

Ciencias Humanas (apoyado también mediante convenio por la Fundación Vital) y con un acuerdo para el sostenimiento del punto de información juvenil del Campus.

- En el marco de la "Ciudad Gastronómica 2014 de Vitoria-Gasteiz", se ha colaborado junto a la Diputación Foral de Álava para la realización de acciones y actividades conjuntas.
- Por otra parte, se ha firmado un convenio de colaboración con la Diputación Foral de Álava para el impulso del sector agroalimentario alavés y el fomento de los proyectos innovadores surgidos por la comunidad universitaria.
- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, por otra parte, ha colaborado en la formación y fomento de la actividad física, facilitando diferentes espacios e instalaciones para la práctica deportiva. Asimismo, ha colaborado en la financiación del Festival de Cortos "Cortada" y se ha establecido un acuerdo de colaboración para el apoyo al emprendimiento.
- En el ámbito del deporte, se han suscrito convenios de colaboración con una veintena de gimnasios de la ciudad con el fin de obtener una serie de ventajas para la comunidad universitaria.
- Asimismo, la participación del Vicerrector del Campus de Álava en el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal, en calidad de vocal, ha facilitado la presencia de la UPV/EHU en la concertación de los planes urbanísticos municipales. Igualmente, se ha participado en otras comisiones, como el Consejo Social del Municipio de Vitoria-Gasteiz, Comité de Hermanamientos, Fundación ZAIN, Junta de Patronato del Instituto Valentín de Foronda y en el Foro de Álava de Responsabilidad Social y Empresarial (FOARSE).
- Se ha subvencionado un Ciclo de conferencias en el Centro Penitenciario de Zaballa, en colaboración con la Comisión Antisida de Álava, ofreciendo espacios educativos y de reflexión a las personas privadas de libertad, que faciliten su reeducación y posterior reinserción en la sociedad.
- Se ha realizado una jornada de intercambio de información entre el CIC-Energigune, la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, el centro de investigación Lascaray y el Vicerrectorado del campus.

### 12.3. Alojamiento universitario

#### 12.3.1. Incrementar la oferta de plazas en residencias universitarias

Se ha continuado con la colaboración con la Fundación Catedral Santa María para la promoción y el fomento de su albergue juvenil y del peregrino, con el fin de incrementar, cuantitativa y cualitativamente, la oferta de alojamiento dirigida a la comunidad

universitaria, así como a las personas colaboradoras en actividades promovidas por el Campus.

**12.3.3. Aumentar la oferta de viviendas solidarias**

Se han abordado diferentes acciones para impulsar el programa de alojamiento de estudiantes con personas mayores.

**12.4. Sostenibilidad y medioambiente**

**12.4.1. Impulsar el transporte sostenible**

- Se ha ampliado el número de aparcabicis en el entorno de la Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte. En la actualidad todos los edificios del Campus cuentan con aparcamiento para bicicletas.
- Continuidad del programa "Compartir coche".

**12.4.2. Avanzar en el ahorro energético (proyectos de eco-gestión, gestión medioambiental)**

Se ha abordado la realización de auditorías energéticas de todos los edificios del Campus de Álava de la UPV/EHU; está prevista su finalización para octubre de 2014. Se ha colocado una instalación fotovoltaica en el nuevo Centro de Investigación de Ciencias Sociales y Humanidades. Continuando con la línea de trabajo de años anteriores, en la EU de Magisterio, en la F. de Farmacia se está trabajando en la sustitución de luminarias por otras de mayor eficiencia en varios locales y aulas y en la sectorización del alumbrado de pasillos y zonas comunes, tras un estudio previo del nivel de iluminación actual de las zonas a adecuar. Como resultado del expediente de enajenación gratuita de material informático no apto para el servicio universitario iniciado mediante resolución de la Gerente de 6 de marzo de 2013 (OP 23/13) han sido adjudicados 135 ordenadores a asociaciones declaradas de utilidad pública o fundaciones. Por último, el edificio del Vicerrectorado del Campus de Álava ha renovado su certificación Ekoscan.

**12.4.3. Trabajar conjuntamente con las instituciones para mejorar el transporte público y apoyar la utilización de medios de transporte alternativo**

En desarrollo del estudio de movilidad y del informe relativo a las connotaciones en el transporte público de acceso al Campus motivadas por el traslado de la terminal de autobuses de Vitoria-Gasteiz, se ha trabajado con la Diputación Foral de Álava, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Diputación Foral de Bizkaia con el fin de promover y mantener las paradas actualmente existentes en el Campus en lo que al transporte proveniente y con destino al área metropolitana de Bilbao se refiere. Todo ello, al objeto de lograr una mayor sostenibilidad en los desplazamientos asociados a la actividad universitaria por parte de su población.

### 12.5. Espacios de encuentro para el alumnado

#### 12.5.1. Desarrollar el proyecto ikasletxeak

- Se ha informado del proyecto al nuevo Consejo de Estudiantes del Campus.
- Se ha equipado el Pabellón Universitario con material audiovisual, para la mejora y adecuación de este espacio cultural.

#### 12.5.2. Mejorar las infraestructuras de los campus

Además de las actuaciones de reforma, ampliación y mejora realizadas en los centros, desde una perspectiva de fomento de la cultura IKD, se han equipado varios espacios con el fin de facilitar el uso de metodologías activas de aprendizaje y el trabajo práctico y en grupo del alumnado. En este sentido, entre otros, se está trabajando en la habilitación de una nueva zona en la EU de Ingeniería, en la reforma de diversas salas de trabajo en la Biblioteca Koldo Mitxelena y en la mejora de la zona exterior de ocio de la Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte.